

1. kasu praktikoa zuzentzeko irizpideak:

1. MBBaren jarduera eta zeregin guztiak arrazoitzea (5 puntu)
 - a. Taula egokia aukeratzea (erabakiak hartzeko moduaren balorazioa) (puntu 1)
 - b. Zeregin bakoitza: 0,074 puntu (4 puntu)
2. Mendekotasun-gradua: III (0,5 puntu)
3. RAI: D/PD/HC (arrazoitua) (0,5 puntu)

BM: TE proposatzea emaitzaren arabera (0,5 puntu) Desgaitasuna baloratzeko aukera (0,5 puntu)

4. Baliabideak (3 puntu)

- a. Aukerak: (2,50 puntu)

Behin-behineko mendetasun-egoeratzat hartzen bada, gizarte- eta osasun-arloko ospitaleratzea (SESB) eskatzera bideratzea, mugikortasuna eta mina hobetzeko. SESBko egonaldiaren ondoren, egoera berraztertzea.

Balorazioa behin betikotzat jotzen bada, egoitzan iraunkorki sartzeko bideratzea.

Egoitzaratu arteko baliabide alternatibo iragankorrak (ELZ zabaltzea, eguneko zentroa (EZ)).

Egoitzaratzea onartuz gero: Egoitza irakunkorreko LPI (desgaitasuna eta mendekotasuna). Egoitzaratzea onartzen ez badu, gaitasunaren aldaketa eskatzeko aukera kontuan hartzea, eta, hala badagokio, egoitzan nahi gabe sartzeko baimena.

- b. Babesgabezia-egoera dela-eta presaz izapidetzeko aukera arrazoitzea. (0,50 puntu)

